



KUTXABANK SAMSUNG PAY LEGE-OINARRIAK

1.- Sustapenaren baldintza orokorrak

KUTXABANK SAK (KUTXABANK, aurrerantzean), IFK A95653077, zerga-egoitza Diego Lopez de Haro Bide Nagusia 30-32 (Bilbo) duenak, zozketa bat antolatu du KUTXABANKeko adin nagusiko bezero guztien artean, gutxienez hiru (3) erosketa egingo dituztenak sustapen-aldian KUTXABANK txartelaz Samsung Pay bidez. Samsung ez da ez antolatzailea ez laguntzailea zozketa honetan.

Zozketa egingo da publizitate- eta sustapen-helburu bakarraz, eta ez du izango gainpreziorik edo tarifa gehigarririk parte-hartzaileentzat. Sustapena egingo da Oinarri hauen arabera, eta parte hartuko duten pertsona guztiek, parte hartze hutsagatik, Oinarri hauek eta beren prozedura arautzen duten arauak onartuko dituzte.

2.- Sustapenaren lurralde-eremua

Zozketa egingo da Espainiako Estatu osoan.

3.- Sustapenaren iraupena

Sustapena hasiko da 2021eko azaroaren 1ean (00:00 h) eta amaituko da 2021eko azaroaren 30ean (23:59 h).

4.- Sustapenean parte hartzeko legitimazioa duten pertsonak

Sustapenean parte hartu ahal izango dute KUTXABANKeko bezeroak diren eta KUTXABANK kreditu/zordunketa txartel bat duten adin nagusiko pertsona fisiko guztiek, gutxienez hiru (3) erosketa egingo dituztenak sustapen-aldian Samsung Pay bidez.

KUTXABANKek sustapenetik kanpo utziko ditu datuak babesteko araudiaren arabera publizitaterik ez jasotzea eskatu duten edo komunikazio komertzialik jaso nahi ez duten pertsonen fitxategi komun batean dauden pertsona fisikoak.

Debekatuta dute sustapenean parte hartzea Samsung Españarekin eta KUTXABANKekin lan-harreman duten pertsonak.

5.- Sustapenaren mekanika

Sustapen honetan parte hartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- KUTXABANKeko bezeroa izatea.
- KUTXABANK kreditu edo zordunketa txartel bat edukitzea.
- Gutxienez hiru (3) erosketa egitea sustapen-aldian Samsung Pay bidez.

Irabazlea aukeratuko da notario aurrean eginiko zozketa bidez, 2021eko abenduaren 15ean edo, egun horretan ezinezkoa izanez gero, data horretatik ahalik eta hurbilen egongo den egunean.

Ezinbesteko kasuetan, bertan behera utzi ahal izango du zozketa KUTXABANKek, eta horren berri emango die parte-hartzaileei.

Zozketa egiteko, sustapenean parte hartzeko legitimazioa duten bezeroen datuen fitxategia emango zaio Vicente María del Arenal Otero Bilboko notariari. Fitxategia hilabetez gordeko da, zozketa-egunetik kontatzen hasita, hala nahi duten pertsonak egiaztatzeko aukera izan dezaten.



KUTXABANK SAMSUNG PAY LEGE-OINARRIAK

Zozketan, zenbaki bakar bat aterako da eskuz eta modu aleatorioan fitxategitik, fitxategian erregistratutako lehenengo eta azken aukeren artean. Zenbaki hori izango da saridun bakarra. Ondoren, 5 erreserba-zenbaki aterako dira, sistema bera erabilita.

KUTXABANKek baztertu egingo ditu Oinarri hauetako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak. Baliogabetzat joko dira eskaera osagabeak, gaizki betetakoak, akasduak, oker bidalitakoak, baldintzak betetzen ez dituztenak edo Oinarri hauetan ezarritako epeen ondoren bidalitakoak, eta ez dute eskubiderik emango lehiaketan parte hartzeko.

6- Saria

Sustapen honetan sarituko da:

- (1) Samsung Galaxy S21 5G VIOLET 8GB 128GB unitate bat.

Sariaren balioa 859 eurokoa da (BEZ barne) gutxi gorabehera.

Irabazleak uko egin ahal izango dio sariari, baina ezin izango dio saria inori laga, aldatu edo harengatik konpentsaziorik jaso. Kasu horretan, zozketaren hurrengo erreserbari eskainiko zaio saria. Ezin izango da inolara ere saria beste sari bategatik trukatu edo haren balioa dirutan jaso.

Zozketaren emaitza argitaratuko da 48 orduko epean gehien jota, zozketa amaitzen denetik kontatzen hasita, post bidez KUTXABANKen Facebookeko profil ofizialean (@KUTXABANK).

7.- Irabazlea hautatzea eta saria entregatzea

Irabazlearen izena argitaratuko da post espezifiko batean KUTXABANKen Facebookeko profil ofizialean (@KUTXABANK), baldin eta horretarako baimena eman badu sariaren dagokion frogagirian. Saria irabazi duela jakinaraziko zaio irabazleari gutun bidez, telefonoz, posta elektronikoz edo KUTXABANKek egoki irizten dion beste edozein bide erabilita.

Bezero irabazleak saria onartzen duela berretsi beharko du, egiaztagiri sinatu baten bidez, 48 orduko epean, saria irabazi duela jakinarazten zaionetik kontatzen hasita.

Sariari uko egiteko, idatzi bat bidali beharko da 15 egun naturaleko epean, zozketaren emaitza jakinarazten denetik kontatzen hasita. Bezeroak uko egiten badiu sariari, ez du inolara konpentsaziorik jasoko.

Ez bada inolara konpentsaziorik jasotzen (ez saria onartzekoa ez uko egitekoa), behin 48 orduko epea igarota bezeroari jakinarazpena bidali ondoren, sariari uko egin zaiola ulertuko da, eta harekin zer egin erabaki ahal izango du KUTXABANKek.

Sariak emango zaizkie bezeroei KUTXABANKek erabakitako moduan eta lekuan.

8.- Datuak babestea

Zozketan parte hartzeak berekin dakar irabazleen datuak sartzeko parte-hartzea kudeatzeko KUTXABANKen Informazio Sistematan, eta soil-soilik erabiliko dira haien izena, abizenak edo irudia edozein publikitate- edo sustapen-jardueratan erreproduzitzeko, erabiltzeko edo zabaltzeko, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, inolara ordainsaririk edo onurarik jasotzeko eskubiderik gabe, irabazlearen edo haren legezko ordezkariaren berariazko baimenaz beti. Gainera, datu pertsonalen erabilerarekin zerikusia duen edozein desadostasun egonez gero, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da kontrol-agintaritzaren aurrean, eta eskubidea izango da datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta datu pertsonalei buruzko erabaki



KUTXABANK SAMSUNG PAY LEGE-OINARRIAK

individual automatizatuen xede ez izateko. Horretarako, idatzi bat bidali beharko da KUTXABANKen helbide sozialera, edo mezu elektronikoa bat info@kutxabank.es helbidera, NANren fotokopia erantsita, bi kasuetan. Bezeroak uste badu bere datu pertsonalak ez direla erabili araudiak ezarri moduan, Datuak Babesteko Delegatuarengana jo ahal izango du (dpo@grupokutxabank.com).

9.- Erantzukizunak

Akats bat dagoenean saritu baten datuetan eta horrek eragozten duenean pertsona hori identifikatzea/aurkitzea eta, ondorioz, saria entregatzea, KUTXABANK saria emateko salbuetsita geldituko da eta ez du inolako erantzukizunik edukiko.

Behin saria irabazleari entregatuta, KUTXABANKek ez du inolako erantzukizunik izango. Ezin izango da inolako lege-ekintzarik abiatu KUTXABANKen aurka, saria gaizki erabiltzeari loturiko inolako arrazoiengatik.

KUTXABANKek beretzat gordetzen du sustapen hau edozein unetan eteteko eskubidea, bai aldi baterako bai behin betiko, segurtasun-arrazoiengatik, zerbitzu informatikoen berregituraketagatik edo eteteagatik, edota hala gomendatzen duen beste edozein arrazoi justifikatuz gero, eta horrek ez du esan nahi parte-hartzaileek kalte-ordainik jasotzeko eskubidea izango dutenik.

Era berean, KUTXABANKek eskubidea izango du zozketaren baldintzak edozein unetan aldatzeko, baita zozketa baliogabetzeko ere, horretarako bidezko arrazoi bat dagoenean. Kasu horretan, oinarri eta baldintza berriak argitaratzeko eta jakinarazteko konpromisoa hartuko du, edo, hala badagokio, baliogabetzeko, behar besteko aurrerapenaz.

10.- Erantzukizunetik salbuestea

Adibide gisa, baina ez mugatzaile gisa, KUTXABANKek ez du bere gain hartuko sustapen honetan eragina izan dezakeen galera, lapurreta, atzerapen edo hirugarrenei egotz dakiekeen beste edozein zirkunstantziaren erantzukizunik, eta ez du bere gain hartuko ere irabazleak sustapen honetan lortutako sariaren erabilerari loturiko inolako erantzukizunik.

KUTXABANKek ez du erantzukizunik izango sustapena egitea edo sari osoa edo zati bat baliatzea eragotz dezakeen ezinbesteko kasuetan edo ustekabeko kasuetan.

11.- Aldaketak

KUTXABANKek eskubidea izango du sustapenaren oinarriak aldatzeko edo zabaltzeko.

12.- Saridunek beren gain hartuko dituzte sarien ondorioz sor litezkeen karga fiskal guztiak.

13.- Ezingo dute saririk jaso zozketa-egunean zozketan parte hartzeko aukera ematen zieten KUTXABANK txartelak baliogabetuta dituzten pertsonak.

Saria jasotzeko, bezeroak egunean eduki beharko ditu KUTXABANKekiko ordainketak eta gainerako eragiketak, eta ez dio zor izango inolako kopururik.

14. Oinarriak kontsultatzea

Oinarri hauek eskura daude KUTXABANKen web orrian (www.kutxabank.es).